



MUSEO-ZUMALAKARREGI-MUSEOA




Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



# GERRA eta BAKEA

# Muzeoko planoak



## Behe solairua:

- 1 Zumalakarregi eta bere garaia  
Zumalakarregi anaiak
- 2 Zumalakarregiren familia
- 3 “Esplora ezazu XIX. mendea” tailerra

## 1.solairua:



- 4 Garaikideak
- 5 “Bi mundu aurrez aurre” ikusentzunezkoa
- 6 Lehenengo Karlistaldiaren aurrekariak  
Foruak  
Arazo dinastikoa
- 7 Aurrakariak  
Karlistak  
Liberalak  
Gerraren gizartiatzea
- 8 Gerraren gakoak  
Karlisten laguntza  
Liberalen laguntza  
Gerra burruka armatua baina gehiago da  
Hiriburuak  
Donostiako panorama  
Gerraren nekea  
Bakea  
Armamentoa

- 9 Gerra arteko garaia  
Bigarren Karlistaldia  
Gerraren eztanda  
Karlisten estatua  
Propaganda  
Azken borrokak  
Karlisten porrota

- 10 Tomas Zumalakarregi. Mitoa
- 11 “XIX. mendeko historia militarra  
Euskal Herrian” multimedia

# GUDAREN HASIERA

Oinarrizko bortizkeria: bestearen deskalifikazioa  
*Etsaiari, ezta urik ere.  
Herri esaera*

Bila ezazu museoan barrena etsaiaren deskalifikazio politiko,  
moral edota fisikoa agertzen duen testu edo irudiren bat.

Bortizkeria bat-batean sortu zen, aurrekinik gabe? Alde  
bakar batean zegoen, ala bietan?

Gaur egun halako fenomenorik ematen  
da? Non, nola?




# GUDAREN MUGAK

Bortizkeriaren mailak  
*Zibil bat militariza daiteke; militar  
bat ezin da zibilizatu.  
Miguel Unamuno, bilbotar  
pentsalaria*

Zer lortu zuen Lord Elliot britainiarrak?

Bake saiakera izan zela uste duzu? Zergatik?

Kanpotar bat neutralago izan daitekeela uste duzu? Zergatik?



# SOLUZIO BILA

Hitzez armek baino indar gehiago dutenean  
*Gerla urte, gezur urte.*  
*Nafar esaera*

Zer nolako argudioak aipatzen dira Muñagorriren bertsoetan, humanitarioak ala praktikoak?

Bakea hutsaren truke aldarrikatu zuen, ala proposamen politiko zehatza zeukan?

Bake prozesuetan zer uste duzu izaten dela nagusi, borondate ona ala pragmatismoa eta ezkutuko interesen borroka?



# BAKEA

Sinboloak eta edukiak

*Maroto baino traidoreago.*  
*Nafar esaera*

Zeren truke lortu zen bakea? Besarkadak zer sinbolizatu nahi zuen?

Garaipen hutsak bakea ekar dezake? Errudunak zigortu gabe ba al dago adiskidetzerik?

Zer deritzozu “hobe bake txar bat gerra on bat baino” esaldiari?

# BORTIZKERIAREN ONDORIOAK

Biktima errugabeak

Hamarnaka mila emakume bortxatuak izan ziren, haien seme eta senarrak kontzentrazio esparruetan jipoituak eta torturatuak ziren bitartean. "Garbiketa etnikoa Jugoslavia ohian" web orria.

Muñagorrik "Bakea eta Foruak" proklama aldarrikatu zuenean, andrea eta seme-alabak preso eramán zizkioten.

Aurki ezazu museoan barrena senide izate hutsagatik norbaitek jasandako errepresioaren adibide bat.

Halako errepresioa nork erabiltzen zuen, karlistek ala liberalek?

Zein da zure ustez, errugabeak zigortzearen arrazoa?



# GARAIPENAREN ONDORIOAK

Gudaren eta bakearen arteko mugak

*Gerrak ez dakar onik, inondik, inondik inora,* Muñagorriren bertsoak

Bergarako Ituna sinatu ondoren, teniente liberal batek Muñagorri harrapatu eta epaiketarik gabe fusilarazi zuen, bere gorrotoa ase nahian.

Sentimenduek politikan eragin dezaketela uste duzu? Hala bada, jarri adibide bat:

Ideologiaz aparte, norberaren jarrerak -keinuak, hizkera, sinboloak...- lagun dezakete bortizkeria apaldu edo areagotzeko?

Zein da bortizkeria ezabatzeko modurik onena? Baldin eta bortizkeria ezabatu behar edo ahal dela uste baduzu:

## Muñagorriren kantak

1

Muñagorrik diona  
bere proklamian:  
gerrak ondatzen gaitu  
bostgarren urtian;  
igaz jarri zan Karlos  
Madrilgo bidian,  
bultza zuten atzera,  
gerra bere oñian.

2

Agintari onenak  
preso daduzkate,  
euskalduna izatia  
du bakoitzak kalte;  
Tejeiro ta Maroto  
guzien alkate  
zer gizon oietatik  
espera gentzake?

3

Karlos agertu ezker  
probintzi aubetan,  
beti bizi gerade  
neke ta penetan;  
maiz kendu guk duguna,  
beñere ezer eman,  
bost negar egiteko  
nunbait jaio giñan

4

Semiak soldadu ta  
preso gurasuak,  
eziñ pagaturikan  
kontribuzioak;  
trintxera lanetara  
gañera auzuak,  
dolorezkoak dira  
gaur gure pausuak.

5

Kordoiz inguraturik  
kostatik Ebrora  
trabaz josirik gaude  
bera eta gora;  
atzenikan frantsesak  
itxi du frontera,  
gerrak ez dakar onik  
iñundik iñora.

6

Ateak itxi eta  
ogia garesti,  
artua ere ai da  
igotzen poliki;  
diruba ezkututzen da  
egunero emendi,  
nola bizi geraren  
arritutzen naiz ni.

7

Bots urte badijuaz  
ta nekian beti,  
ia bear ditugu  
begiak idiki;  
karlistak Ebroz gora  
motel eta gutxi,  
aien esperantzetan  
ez gaitezen bizi.

8

Hainbeste odol ixurtze  
ez da doloria?  
Il da probintzi auetan  
gaztien loria;  
Patria defenditzea  
litzake onoria,  
anaia anaien kontra  
txit gauza tristia

9

Orañ sei eun urte  
gutxi gora bera,  
Gaztelako reinura  
unituak gera;  
Gaztelan zein buru dan  
ura guk artzera,  
fueoak gordezker  
egin zan papera.

10

Disputarikan bada  
zeiñentzat korua,  
erabaki bear da  
Gaztelan pleitua;  
errege edo erregiña  
gure deretxua,  
beti gorde digula  
Garbiro fuerua.

11

Zertan sartu gerrara  
juez iñorentzat?  
Madrilen da tronuba  
gaztelaubentzat;  
an koronatzan dena  
guztion burutzat,  
fueoa gordezker  
ona da guretzat.

12

Adiskide maiteak,  
ona klaro gauza:  
bakarrikan fueoak  
dira gure kausa;  
aiek defenditze  
deretxua dauka  
probintziko semiak  
ori eziñ uka.

13

Relijio santuan  
guk elkar arturik,  
ez du gure artean  
izango kalterik;  
len bezela egiñikan  
gure funtzioak,  
elizetan sermoiak  
ta prozesioak.

14

Zori onez berentzat,  
gure aurrekoak  
beti gorde zituzten  
leialki fueoak;  
urtero mudaturikan  
diputazioak,  
Juntan ematen ziran  
orduban kontuak.

15

Etzan lapur famarik  
diputazioan,  
ez da beste soñurik  
oraingo denboran;  
deitu gabe Juntarik,  
illunpe moduban,  
artu eman garbirik  
ez oi da munduban.

16

Juntak eta apaizak  
elkar artu ezker  
noren beldur gera gu  
ez orain ta ez gero?  
Gerrak idiki ditu  
guztion begiak  
unitzeko, ez bagaude  
burutik jausiak.

17

Legea autsi ezker  
bizi gera penaz,  
legea osa dezagun  
laster eta benaz;  
pakea etorriko da  
ondoren txit erraz,  
Muñagorrik diona,  
kontentuz ta pozaz.

18

Muñagorri, zu zera, zu  
zori onekua,  
bandera altxatu dezu  
gure bakekua.  
Potentzi ongilleak  
emanik besua,  
laister egingo degu  
bake ditxosua.

19

Probintziano gazte  
onorez betiak,  
bandera bakekora  
guazen guztiak;  
soldadu, ofiziale,  
orobat jefiak,  
danak izango ditu  
gradu ta agintiak.

20

Potentzi indartsubak  
eman dute itza,  
egiteko bakiak  
prestuak dabilta;  
probintziak bakean  
daduka bizitza,  
nork ez du bere amaren  
sendatu nai gaitza